

# noaua

**Foru Aldundiak ospitalera dihoan autobus zerbitzua kenduko du**

**Zumarte Musika Eskolan matrikulazio epea zabaldu dute**

**Usurbil K.E. taldeko kadete mutilek Sektorea jokatzeko txartela eskuratu dute**

**Onintze Kamino Landa:**

**“Gure kaleetan egoera zaurgarrion dauden pertsona asko bizi dira”**


ehbildu

Usurbil

Maiatzak 24 Osteguna, Potxoenean 19:00etan

# HERRI BATZARRA

- Herriko hauteskunde-plangintzaren aurkezpena
- Herrialdetako eta hiriburuetako zerrendaburuak aurkeratzeko barne-prozesuaren berri ematea



Usurbilen,  
zure auto-tailerra


Esenta Ramon

**Atallu**  
AUTOAK

Motorra  
Balaztak  
Mekanika  
Esekidurak  
DOHAINIK IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua

**EuroTaller**

Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com



  
**NOAOA**  
BIDAIK

943 373 613

**CADIZ EZAGUTUZ**  
MAIATZAN 8 EGUN ETA URRIAN 10 EGUN

[WWW.NOAOA.EUS](http://WWW.NOAOA.EUS)

## Albiste iruditzen

# “Elkarrizketarako mugak gaintitu behar ditugu”

**K**ultura politiko demokratikoan sakontzeko xedez, eskualde ezberdinetan hausnarketa saioei ekin die Foru Aldundiak. Lehena astelehenean egin zen Lasarte-Orian eta Buruntzaldeko eragile sozial eta ekonomikoek, hautetsiek eta adituek hartu zuten parte.

Markel Olanorentzat hauxe da Foru Aldundiaren helburu nagusietako bat: “Herritarren bizikidetzaren sendotzea, kultura politikoaren bitartez eta demokrazian sakonduz”. Diputatu nagusiak betebeharrak gisa hartu zuen “sistema demokratiko sendo eta zorrotza eraikitzea, giza eskubiaren defentsan oinarria duena”.

### Ikerketa lana hizpide

Asteleheneko saioan, ‘Gipuzkoarren Kultura Politika’ izeneko ikerketa lanabes gisa hartu zuten. “Ikerketak agerian utzi du gipuzkoarren gehiengoak gizartearengan duen konfiantza handia edota Euska-



Argazkia: Txintxarri.

**Maribel Vaquero eta Markel Olano Buruntzaldeko eragileekin batu ziren astelehenean Lasarte-Orian. Besteak beste, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo alkate eta zinegotziak bertaratu ziren.**

diko funtzionamendu demokratikoaren asebetetze maila altua, aldiz, Espainiako Estatuarekiko mesfidantza gehiago agertu dute”, Foru Aldunditik aditzera eman zuten. Erabakitze eskubideak duen onarpen zabalak ere nabarmentzeko moduko datuak utzi zituzten ‘Gipuzkoarren

Kultura Politika’ izeneko ikerketan.

Asteleheneko saioaren ondoren, gehiago egingo dituzte Gipuzkoan zehar. Eta horietan ere xede nagusia hau izango da: “konfiantza sendotzea, askatasunez hitz egiteko aukerak sortzea, elkarri entzun eta errespetatuz”.

## Laburrean

### Gipuzkoako Biraren 5. etapa astebete aurreratu dute

Gipuzkoako Biraren 5. etapa, Kanpazar (Arrasate)-Arlaban (Leintz-Gatzaga) artekoa astebete aurreratu dute, ekainaren 10etik 3ra. Eta Mendi Asteko datak zuzendu ditu; azaroaren 21, 23 eta 25ean ospatuko dute. Informazio gehiago: [andatza.com](http://andatza.com)

### Jaietako deialdietan parte hartzeko azken egunak

Usurbilgo festetako egitarau diseinu lehiaketara aurkeztu edota txupinazioa jaurtitzeko hautagaiak proposatzeko epea maiatzaren 18an itxiko dute. Maiatzaren 22rako deitu dute Santixabelak prestatzen segitzeko Jai Batzordearen bilera. Ohi bezala, 18:00etan Potxoenean.

### Igeriketa saioak itsasoan egiteko aukera

Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak itsasoko entrenamendu saioak egingo ditu udan. Ekainaren 11tik uztailaren 20ra, Donostiako Badian.

Izen-ematea zabalik da. Informazio gehiago e-posta helbide honetan: [info@buruntzaldeaikt.eus](mailto:info@buruntzaldeaikt.eus)

# noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 || [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) || [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Garazi Lizaso Manterola

## Nik sinesten dizut

A skori ekarriko dio gogora 2016ko San Ferminetako eraso sexista *nik sinesten dizut* esaldiak. Handik urtebetera, 2017ko azaroan, hasi zen epaiketa. Bertan ospetsu egin zen, urria hasieran, Foro Sozialak asmatu zuen leloa. Hain zuzen ere, Euskal Herriak bizi (izan) duen gatazka politiko-armatuaren altzoan emakumeek\* jasan duten indarkeria matxista landu zen bertan. Helburuen artean zeuden, hala nola, aitortzea, justizia egitea eta erreparazioa. Emakumeen\* egia aitortzea. Izan ere, euskal emakumeen\* gorputzak hainbat gatazkek, pluralean, zeharkatu dituzte.

Nik sinesten dizut horren funtsean aitortza dago, no-

labaiteko onarpena. Hortik hasten da erreparazioa. Behar bada, sekula itxiko ez diren zauriak dira, sakonak edota azalekoak. Hala ere, mina sortu dutenik ezin uka eta justizia eskatzen dute. Agian, ez dira inoiz itxiko. Dena den, osatzea bilatu beharra dago, sendatzea. Edo, behinik behin, horiekin bizitzen ikastea.

Aitorpenak sinesgarritasunaren kinka dakar, hitzen zalan-tza eta egiaren balazta. Nork bere egia du eta unibertsalik ez dago. Hala ere, hainbatetan ukatu zaie egia emakumei\* eta luzea da euren larruzala gurutzatu duten bortizkerien zerrenda. “Ez da hainbestearainoko izan” edo “seguru al zaude horrela izan dela?” esaldiek galdera ikurretan murgilaraztea ekarri dute eta ez diote

euren buruari ere sinetsi. Askotan.

Bizitakoak nola sentitu inork ezin du agindu, ezta ulertu ere. “Minik ez zuela sentitu” San Ferminetan bortxatu zuen neskek, horixe esan zion epaileak. Nork froga dezake hori? Mailu bat eskuan duen (gehienetan) gizonezko, zuri, klase altuko, heterosexual, ez-atzerritar batetik? Herri honetako tortura kasuak ukatu dituen horrek? Nik sinesten dizut eta jendarteak ere bai. Izan ere, gauza batzuk nabariak dira, agerikoak, bistakoak; ez denontzat, ordea.

Nabarmena da, baita ere, salaketa faltsu ugari daudela. Ariketatxo bat proposatzen dizuet: sartu Interneten, bilatzaillean idatzi “denuncias falsas 2016” esaterako (agian, dagoeneko 2017ko portzentajea ere

egongo da) eta zerorrek ikusiko duzu emaitza. Egin baduzue, ziur bat baino gehiago harritu egin dela. El Mundo [<http://www.elmundo.es/sociedad/2017/09/05/59aec40022601d052f8b4574.html>] egunkariak argitaratu du indarkeria matxistaren aurkako salaketan % 0,01 baino salaketa faltsu gutxiago daudela.

Zehazki, Estatuko Fiskaltza Nagusiak aztertutakoaren ondorioa da. Berri Txarrak taldeak kantatzen duen moduan: esan gezur bat mila aldiz, errepikatu hitzez hitz, handik gutxira ikusi egi bihurtzen...

Baina nik sinesten dizut eta dizuet. Ziur nago askok sinesten dizugula, dizuegula eta sinetsiko dizuegula.

Luis Aranalde | **Garazi Lizaso Manterola** | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Luken Arkarazo

## Txangoaren ondoren, ostiral honetan disko aurkezpena

Euritan egin behar izan zuen joan den larunbatean, Udarregi baserrira txangoan irten-dako herritar taldeak. Ikastola atarian egin zuten geldialdian atera genien ondoko argazkia, aterkipean.

Ikastolaren 50. urtemugako ospakizunen baitan antolatu zuten txango hau. Ostiral honetarako (maiatzak 18) iraga-

rri dute hurrengo hitzordua. 19:00etan aurkeztuko dute frontoian, martxoan zehar grabatu zuten 50. urtemugako diskoa. “Bertan, diskoko 10 bat kanta abestuko ditugu”, berri eman dute Ikastolatik. Gogoan izan, Lizardi eta Laurok liburu dendetan, Bordatxo tabernan eta Udarregi Ikastolan eskura dezakezue 6 euroren truke.



Argazkian, Udarregi baserrira eginiko irteeran parte hartu zuten lagunak.

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

# Ospitalerako autobus zerbitzua kenduko du Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzuetan iragarritako berregokitzapenak murrizketetan gauzaten hasiak dira, Usurbilgo Udalak ohar bidez zabaldu duen albistearen arabera. Maiatzaren 3an bildu ziren Xabier Arregi alkatea eta Jone Urdanpilleta zinegotzia Aldundiko mugikortasun-diputatu Marisol Garmendiarekin. Bileran hartan, Buruntzaldeko autobus zerbitzuak berrantolatzeko proiektuaren zehaztasunen berri jaso zuten Usurbilgo udal ordezkariak.

Aipatu moduan, Garmendiak ahoz jakinarazi zien, Usurbildik ospitaleetara doan autobus zerbitzua ezabatu egingo dutela erabiltze gutxi dituela argudiatuta, eta aldiz, Zubietatik barrena Hernanirantz doan autobus zerbitzua bere horretan mantenduko dutela.

Honenbestez, autobus zerbitzuen murrizketen aurka Usurbilgo Udalak eta 2.000 usurbildarrek eginiko alegazioei bizkar eman die Aldundiak, ez dituzte erantzun, ezta aintzakotzat hartu ere, halako erabakiak hartu aurretik, herritar, eragile nahiz erakundeekin hitz egin eta adostasunera heltzeko eskaria. Diputazioak hartutako erabakiarekiko desadostasuna agertu du Udalak eta hitza hartzeko aukera ukatu izana salatu dute. “Iruditzen zaigu ezin dela linea hori kendu, batetik, herritarrei eta Udalari aukera eman gabe parte hartze aktiboaren bidez ze beste aukera dauden aztertze. Eta bestetik, iruditzen zaigulako oinarrizko zerbitzuetan irizpide ekonomizista soilak erabiltzea ez dela egokia”, adierazi du Xabier Arregi alkateak.



Murrizketarik Ez! Plataformak kalean mobilizatzerara deitu ditu herritarrak.

## USURBILGO UDALA

**“Iruditzen zaigu ezin dela linea hori kendu, batetik, herritarrei eta Udalari aukera eman gabe parte hartze aktiboaren bidez ze beste aukera dauden aztertze.”**

**“Eta bestetik, iruditzen zaigulako oinarrizko zerbitzuetan irizpide ekonomizista soilak erabiltzea ez dela egokia”**

Alkateak lehendik esan izan dutena berretsi du. “Zerbitzu hori bereziki sentsiblea, garrantzitsua dela, ospitaleetara doan jendea hara joatera behartua dagoelako, eta gainera, gizarteko sektore ahulena dira horren erabiltzaileak. Hori kontuz badu esanahi kualitatiboa ere eta handia gainera”.

### Murrizketarik Ez!

#### Plataformaren adierazpena

Zerbitzu honen ezabatzearen berri jaso bezain laster adierazpena plazaratu zuen, herritarrek, eragile ezberdinak edota autobus gidariak biltzen dituen Autobus Zerbitzuetan Murrizketarik Ez! plataformak. Adierazi nahi dute, “ozenki salatzen ditugula, kasu honetan Usurbilgo herriak jasango dituen

murrizketak, azken egunotan zerbitzu hauek indartuko dituztela saltzen diguten bitartean”, adierazi dute. Onartezintzat jotzen dute, “interes ekonomikoak herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen gaindi jartzeara”, diotenez, “beste behin ere, herritarren iritzia kontuan hartu gabe, inposaketaren bitartez”. Aldundian egun agintean diren EAJ eta PSE alderdietako kideek, “herritarren iritzi eta erabakiari beldur diotela ematen du, demokraziaren bandera astintzen duten bitartean”.

Plataformako kideek kezka agertu dute, Aldundiak laster ezagutzera emango duen gai honi lotutako proiektuaren edukiarekiko, “Usurbilgo herritari egokitu zaiona, datozen egunetan eskualdeko gainontzeko herriengana iritsiko denaren beldur baikara”.

Autobus zerbitzuak berrantolatzeko iragarria zuen aurreproiektua bertan behera utzi, eta murrizketarik ez aplikatzea eskatzen diote Aldundiari, “berma dezala gutxienez egun garraio bide publikoek eskaintzen duten zerbitzua. Adostutako eta guztiontzat kalte gutxien sortuko dituen erabaki bateratu batera iristeko helburuz, negoziazio mahai bat irekitzeko”. Herritarrak murrizketon aurrean kalean mobilizatzerara deitzen dituzte.

## EHBilduren batzarra

“Hauteskunde-erronkara elkarrekin lotzeko deia” egiten die herritarrei Usurbilgo EHBilduk, 2019ko maiatzean ospatuko diren udal eta foru hauteskundeetarako urtebete falta den honetan. Koalizioetik berri eman dutenez, hitzordu honi begirako plangintza osatzen dabilta; “urtebete honetarako lan eta zereginak ordenatzen, egutegian kokatzen...”. Ekaina amaieran herrialdeko eta hiriburuetako zerrendaburuak hautatzeko barne-prozedura ere abiatu du EHBilduk. Hautagaiak proposatzeko maiatzaren 27ra arteko epea dago. Prozedu honetan parte hartzeko elkarrekin.ehbildu.eus atarian eman behar da izena. Horren guztiaren berri eman eta herritarren ekarpenak jasotzeko herri batzarra deitu dute maiatzaren 24rako 19:00etan Potxoenean.

“Usurbilen ere badugu eronkarik. EHBilduren proiektua erroto dadin nahi dugu”, adierazi dute. Honenbestez, hurrengo asteko batzarrera “etorri eta izan zaitez proiektu honetako kide. Parte hartu, iritzia eman, bozkatu, ekarpena egin... hamaika modu daude laguntzeko”, adierazi dute koalizioetik.

## Sortuk Bilbon egingo duen ekitaldira joateko autobusa antolatu dute

Sortuk ‘Baietza Sortzen’ ekitaldi nazionala egingo du larunbatean Miribillako Bilbako Arenan, “ireki berri den aro berriari bultzada emateko”. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da ekitaldia.

### Autobusa Usurbildik

Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Usurbildik. Izena emateko zerrendak, ohiko tabernetan.

# Zumarte Musika Eskolak matrikulazio sistema aldatu du

Astelehenean zabalduko da izen-ematea Zumarte Musika Eskolan eta maiatzaren 25era arte egongo da bertan matrikulatzeko aukera. Aurten bi modutara egin ahal izango da. On-line, musika eskolaren web orriaren bitartez edota Zumarte Musika Eskolaren bulegoan bertaratzuz.

## Aurten, bi modutara:

### Online:

■ Inprimakia [www.zumarte.eus](http://www.zumarte.eus) helbidean on-line bete eta bidali.

### Bulegoan:

■ Inprimakia bulegoan jaso, eskuz bete eta musika eskolako bulegoan entregatu (Puntapax 10, behea).

## Ikasgaiak:

■ Musika txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, tronboia, saxofoia, bonbardinoa, biolina, biola, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra,



Maiatzaren 21etik 25era osatu beharko da matrikulazioa.

## BERRIKUNTZAK

**“Bi aukera daude: online egin daiteke edo bestela bulegora bertaratzuz”**

flauta, organoa, teknika bokala, abesbatza eta talde instrumentalak.

## Gutxieneko adina:

■ 4 urte.

## Matrikulazio datak:

Maiatzak 21-25

## Ordutegia:

■ Goizez (asteartea eta osteguna): 10:30-12:30 bitarte.

■ Arratsaldez (egunero): 16:30etik 19:00bitarte.

## Informazio gehiago:

**Helbidea:**  
Puntapax 10, behea

**Telefono zenbakia:**  
943371594.  
[www.zumarte.eus](http://www.zumarte.eus)

# UEU-ren Jakin Jardunaldiak Usurbilen ospatuko dira

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) datorren udarako antolatu dituen ikastaroen 46. edizioaren baitan, iaz bezala, aurten ere, Jakin Jardunaldiak ospatuko dira Usurbilen.

Datak finkatuak daude dagoeneko; UEUK Jakin Fundazioarekin batera antolatu dituen jardunaldiok uztailaren 12an eta 13an izango dira. Gaia ere zehaztua dago; “Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila”.

## Matrikulazio epea zabalik da ueu.eus atarian

Jardunaldiotarako matrikulazio epea, zabalik dago jada. Izen ematea ueu.eus ataritik bideratu beharko da. Argibide gehiago, tartean egitarau zehatza, web orrialde berean jaso ahalko dira.

Bigarrenez antolatuko da hitzordu hau Usurbilen. Iaz “Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen ari diren lekua” izan zuten hizpide.



Jakin Jardunaldiaren lehen edizioa iaz egin zen Usurbilen. Aurtengoa ere bertan ospatuko da. Udalak diruz laguntzen du udako ikastaro hau.

# Moyua enpresak Zumarte birgaitzeko eginiko eskaintza onartu du udalbatzak

Zumarte Musika Eskolaren birgaitze lanak hasitetik hurbilago gaude maiatzaren 10ean udalbatzak egin zuen ezohiko osoko bilkuraren ostean. Obren kontratazio esleipen deialdira aurkezturiko eskaintza bakarra, Construcciones Moyua SL-k eginikoa izendatu dute eskaintza onena gisa.



Udalbatzak ahobatez onartu zuen Moyua SL enpresaren eskaintza.

Udalbatzak aho batez onarturiko erabaki honen ostean, 10 eguneko epea du aipatu enpresak, beharrezko dokumentazioa aurkezteko eta dagokion bermea, esleipenaren %7a (114.615,98 euro) ordaintzeko. Guztia aurreikusi bezala badoa, aipatu enpresak urrats hau egoki betetzen badu, hurrengo osoko bilkuran aipatu enpresa honi esleituko lioke udalbatzak, musika eskolaren birgaitze lanak gauzatzeko obren kontratua.

Construcciones Moyua SL-k aurkezturiko eskaintzak beharrezko baldintza guztiak betetzen dituela adierazi zuen aurreko asteko osoko bilkuran, Xabier Arregi alkateak. Guztira, 1.981.219 euroko proposa-

men ekonomikoa aurkeztu du. Lanotarako aurrekontuarekin alderatuta (1.998.998,78 euro) %0,89ko jaitsiera planteatu du. Finkatutako bermeak gaintzen ditu aipatu eskaintzak. Bestalde, Moyuaren eskaintzak Gipuzkoako eraikuntza sektoreko hitzarmen kolektiboak finkatzen dituen baldintzak hobetzen ditu.

Xehetasun gisa, udal gobernu taldetik berri eman zutenez, zenbait lan zehatzetarako, geotermia instalakuntzarako, musika eskolaren eraikina intsonorizatzeko, egur lanketa berezi bat bideratzeko eta teilatutako berdea eraikitzeko, enpresa espezializatuak kontratatuko dira.

## Hitzarmena, berritua

Maiatzaren 10eko saioan, Usurbilgo Udalak eta Zumarte Musika Eskolak 2014an 4 urterako sinatua zuen hitzarmena berritzea onartu zuen aho batez baita, udalbatzak. Hitzarmenak, musika eskolak jasoko duen diru-laguntza erregimena eta prekarioz utzitako lokalen erabilera arautzen du. Diru-laguntzei dagokienez, urtero 50.000 euro ematera konprometitzen da Udala, musika eskolaren aurrekontuaren %33ko ekarpena egingo du honenbestez. Gainerako laguntza, Eusko Jaurlaritzatik eta musika eskolako erabiltzaileek ordaindutako kuotetatik jasotzen dute.

Hitzarmen berritu honek,

lokal baten baino gehiagoren lagapena arautuko du, dakizueenez, ikasturte hasieratik behin behinean, herriko egoitza ezberdinak baliatzen ari baitira Zumartekoak, Kale Nagusiko Villa Pilar eraikineko birgaitze lanak amaitu artean. Hitzarmen hau birgaitze lanak bukatutakoan, 2019-20 ikasturtean berritzea aurreikusten da, alegia, “musika eskolaren egoitzaren obrak amaitu eta ekipatu ondoren erabiltzen” hasitakoan. Hare, hitzarmen hau lau urtera arte luzatu daiteke.

## Udal diru-laguntzen ebazpena

Udal diru-laguntza batzordeak behin behinean onartu ditu. Ostegun honetan (maiatzak 17) argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kultura, kirola, gizartegintza, ingurumena, nekazaritza eta abeltzaintza arloetako egitasmoak babesteko Udalak hasieraz onarturiko 2018ko laguntza guztion ebazpena. Alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea izango da gero, maiatzaren 18tik 31ra (bi egunok barne).

## Josune Urkola, EAJ: “Oso albiste ona da”

EAJ-PNVren udal taldearentzat “oso albiste ona” da aurreko osteguneko udal plenoan hartutako erabakia, Zumarte Musika Eskola birgaitzeko lanak esleitzeko akordioa. Lau zinegotzi jeltzaleek aldeko botoa eman zuten. Lanek 1.981.000 euroko aurrekontua dute, BEZ barne, eta obrak 12 hilabetez iraungo du.

Josune Urkola jeltzaleen bozeramalearen esanetan,

musika eskolaren birgaitze lanak lehenago jarri behar ziren abian eta gogora ekarri nahi du “orain ia lau urte udal hauteskundeetara aurkeztu genuen helburuetako bat izan zen, orduan ikusten baikenuen eraikinaren egoera tamalgarria eta berritu beharra zegoela segurtasuna bermatzeko”.

Josune Urkola zinegotzi jeltzaleak prentsa-ohar bidez adierazi duenez, “biziki poz-

ten gara agintean dagoen udal gehiengoak bat egitea orduan usurbildarrei aurkeztu genion proposamenarekin eta poz-tuko ginatke birgaitzeko proposamena aho batez onartua izango balitz”.

## Kalitatezko eraikin modernoa eta eroso

Bozeramaileak gogoratu du denbora gehiago ezin dela galdu herriko gazte askok du-

ten musika zaletasuna “kalitatezko eraikin moderno eta eroso batean landu eta bideratzeko horretarako behar diren baldintzak bermatuz”.

Azkenik, EAJko bozeramaileak uste du musika zaletasuna lantzea eta bitartekoak jartzea kulturaren aldeko apustu sendo bat egitea dela, “kultura delako benetan herri-tar hobeagoak eta libreagoak egiten gaituena”.

# Hezkuntza sistema burujabea eraikitzen segitzeko konpromisoa

**3**0 urte bete ditu LAB Irakaskuntzaren jardunak. Urtemuga Udarregi Ikastolan ospatu zuten maiatzaren 12an. 1987an sortzera bultzatu zuten arrazoiak bizirik, bere horretan mantentzen direla azpimarratu zuten, ikastolako erdiko aretoan egindako ospakizunean. “Euskal estatu burujabea helburu, LAB Irakaskuntzaren ekarpena behar beharrezkoa dela argi geratu da eta horretarako hezkuntza sistema burujabea iruten jarraitzeko konpromisoa berretsi dugu”.

Hiru hamarkadetan jorratu duten bidearen errepaso egin zuten. “Hamaika izan dira martxan jarritako dinamika, borrokak, proposamenak... eta gehiago egiteko ilusioa eta indarra badugula aldarrikatu dugu”.

Argi diote LAB Irakaskuntzatik, 30 urteotan hainbat lorpen izan dira, langileen eskubideen alde eta hezkuntza sistema burujabea eraikitze bidean. “Baina ezin esan, guztia egin dagoenik, ezta urrik eman ere, hezkuntzako langileon lan baldintza duinak izan daitezkeen asko dugu egiteko eta zer esanik ez hezkuntza sistema burujabea eraikitze”. Horre-



“Hezkuntza komunitatean eztabaida eta hausnarketa” eragin nahi du LABek.

## LAB

**“30 urteotan hainbat lorpen izan dira langileen eskubideen alde eta hezkuntza sistema burujabea eraikitze bidean”**

tarako ezinbestekotzat jotzen dituzte, adostasuna, batasuna eta elkarlana. “LAB sindikatuak dei egiten dio Hezkuntza Komunitate osoari eztabaida sano bat egiteko proposamenak mahai gainean jartzeko eta gure herriak behar duen hezkuntza eraikitze adostasunak eraikitze”.

## Euskal eskola publiko komunitarioaren alde

LAB sindikatuaren hezkuntza

proiektua berritzeko proposamena osatzen ari dira. Irailean aurkeztuko dute, afiliatuek eztabaida dezaten. “Urrats ez urrats Hezkuntza Sistema Burujabea iruteko tresna izatea nahiko genuke. Hezkuntza komunitatean eztabaida eta hausnarketa eragin nahi dugu”.

## “30+ Usurbilgo Adierazpena”

Izenburu horrekin aurreratu ditu LAB Irakaskuntzak, hezkuntza egitasmoa ziklo berrira eguneratzeko lantzen ari den proposamenaren ardatz nagusiak. Bi erronka nagusi planteatzen dituzte: “Hezkuntza sistema burujabea eratzea Euskal Herri osoan; bestetik, euskal eskola publiko komunitarioa eratzea, hezkuntza sistema horren ardatz gisa”.

## Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioari buruzko tailerra

Sokari helduz tailerra antolatu dute Gaztelekuko hezitzaileek maiatzaren 26an. “Nola hobetu guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa?”, hortxe ahotan hartuko duten gaia, 10:00-12:00 artean Potxoenean.

“Bertan, guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa ho-

betzeko tresnak landuko dira, praktikatutasunetik abiatuta”, adierazi dute antolatzaileek. Ikasturte hasieran Gaztelekuko hezitzaileek gurasoekin egin ohi duten bileran irtendako kezketatik abiatuta deitu dute, Gaztelekuko erabiltzaileak izan edo ez, 12-18 urte arteko nera-

been gurasoei zuzendua egongo den tailer hau.

## Aurrez eman behar da izena

Aurrez eman behar da izena, maiatzaren 23a baino lehen, Gaztelekuan edo gaztelekua@usurbil.eus helbidean.

Argibide gehiago: 688 713 838.

## Ate irekien azken eguna

### Lanbide Eskolan

Lanbide Eskolaren proiektua eta azpiegiturak ezagutzeko azken ate irekien eguna larunbat honetan izango da (maiatzak 19) 11:00etan. 2018-19 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainaren atarian antolatutako jardunaldiok.

### Informazio gehiago:

943 364 600  
eskola@lhusurbil.eus

## Langile eta langabetuentzako ikastaroak

Ikastaroak Lanbide Eskolan izaten dira, astelehenetik ostegunera, 18:00-21:00 artean.

■ Maiatzak 21: mikro-kogenerazioa (12 ordu).

■ Maiatzak 29: mini-eolikoa (20 ordu).

### Informazio gehiago:

zubigune.org/eu/cursos/  
943 364 600 / 943 562 061

## 20 langabetu gutxiago apirilean

Martxotik apirilera, nabarmen egin du beherantz langabetu kopuruak Usurbilen. Zehazkiago esanda, 20 langabetu gutxiago zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzuak; martxoan 262 langabetu, apirilean 242. Beherakada, eskualdean eta Gipuzkoan ere nabaritu da.

Alde nabaria dago generoaren aldagaia kontuan hartuz gero. Apirilean, 100 gizonetako eta 142 emakumezko langabetu zituen Usurbilek. Aldiz, emakumezkoak baino (140) gizonezko askoz gehiago (309) kontratatu da apirilean. Ia denak (449tik 421) aldi baterako eta 203 zerbitzuen sektorean.



## Artze omentzeko aukera, denon eskura

Hilabete eskas baino ez da geratzen, ekainaren 16an Usurbilgo herriak merezitako omenaldia egiteko urte hasieran zendu zen Joxan Artzeri. Herrikoia eta parte hartzailea izatea nahi dute eguna. Dagoeneko, ekainaren 16an, 18:30ean Dema plazan ospatuko den ekitaldi baten zehaztasunak aurreratu dituzte, herritarrek hitzordu honetan parte hartzeko gonbita luza-tzearekin batera.

Txalapartak giroturiko poema errezitaldi herrikoia antolatu dute Dema plazan, elizako hormaren aurrealdean. Bertan, Joxean Artzeren lanaren aitortza egingo da, poesia eta txalaparta uztartuz. Artze anaien txalaparta jarriko dute bertan. Artzeretikiko sentimenduren bat adierazi nahi duen herritar orok, horretarako aukera izan-



Herritarren batzorde bat sortu zen martxoan, Artze Taldea, eta ordutik ekainaren 16ko ekitaldiarako prestaketak bideratzen ari dira.

### IZEN-EMATEA, ZABALIK

**Ekainaren 16an  
errezitaldi herrikoia  
egingo da Dema plazan**

gon du, Artzetarren txalaparta joz edota poema bat irakurritz. Aurrez izena ematea eskatzen da, 943 371 999 (goizez) edo 943 360 692 (arratsalde) tele-

fono zenbakietako batera deituta.

### Erregistro liburua zabalik

Artzeretikiko sentimenduren bat adierazteko beste bide bat ere egongo da. Omenaldi egunera arte Potxoenean jarria izango den Erregistro Liburuan. Ekainaren 16an ere, hitzez Artze omentzeko aukera izango da aipatu liburuan.

### Kantu Taldea, maiatzean arratsaldean

Azken hilabeteotan eguerdi partean ospatu ostean, oraingoan arratsalderako iragarri du Usurbilgo Kantu Taldeak maiatzeko kantu-jira. Hilaren 26an irtengo dira 19:00etan Mikel Laboa plazatik. Afa-lurreko poteo ordua girotuko dute.

### Presoen eskubideen alde deialdi bikoitza

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta:

■ Maiatzak 20, igandea: 13:00-37. Sagardo Egunaren baitan, elkarretaratzea eta giza katea Mikel Laboa plazako txosnagunetik.

■ Maiatzak 25, ostirala: 20:00-Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

## Maiatzaren 24an, pentsioen inguruko herri asanblada Sutegin

Aginagako Arrate, Santueneko Gure Elkartea eta Usurbilgo Gure Pakea jubilatuko elkarteek pentsioen inguruko herri asanblada deitu dute maiatzaren 24an 18:30ean Sutegin. Donostiako Jubilatuen Asanbladako kide Marian Esnaolak parte hartuko du hitzorduan. "Hator!", luzatu diete deitzaileek

gonbita herritarrei.

### Manifestazioa hilaren 26an

Astelehenero mobilizatzen ari dira hainbat herri eta hirietan. Donostian, 12:00etan Alderdi Ederren. Manifestazio jendetsuak egin dituzte. Eskari argi bat plazaratzen ari dira; duintasunez bizi ahal izatea eta horretarako

pentsio duinak izatea, kolektibo honentzat negoziatzeko eskubidea. Kideok biltzen dituzten elkarte ezberdinek, Pentsionistak Martxan, Duintasuna Elkartea, Arabako Pentsionistak Lanean eta Pentsionistak Aurrera eragileek manifestazioak deitu dituzte hilabete amaierarako hiriburuetan. "Bizitza duina, kalitatezko

lanpostuak, pentsio duinak izateko eskubideak, ez dira soilik pentsiodunon aldarrikapenak izan behar. Horregatik, dei egiten diogu euskal gizarte osoari (gazte, emakume, langile, langabetu, autonomo...) maiatzaren 26an Hego Euskal Herriko hiriburuetan egingo diren manifestazioetan parte har dezaten".



**BIOTERRA**  
2018

#Bioterra2018

## GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen,  
bioeraikuntzaren,  
energia berriztagarrien  
eta kontsumo  
arduratsuen azoka

**1 · 2 · 3**

Ekaina. Ficoba, Irun.

Gonbidapen hau moztu eta azokaren sarreran aurkeztu

[bioterra.ficoba.org](http://bioterra.ficoba.org)

**P**  
DOHAINIK

Ficobara,  
zafoz  
Irenean!   
Irun-Ficoba geltokia

# “Gustu handiz joango gara Sagardo Egunera”

**H**ala tokatu da. Hilabete gutxiko tartean, bigarrenegokituko zaio Haimar Zubeldiari frontoiko oholtzara igotzea. Oraingoan, usurbildarrentzat bereziena den 37. Sagardo Egunari hasiera emateko ohorea izango du. Bitan pentsatu gabe esandio Haimarrek baietz, antolatzaille gonbitari. Lerrootan elkarrizketatu dugu.

## NOAUA! Erretiratu ostetik hilabete batzuk igaro dira. Egokitzapen fasea igaro duzu?

**Haimar Zubeldia:** Uste baino hobeto. Zer egin nahi nuen eta zer aukera zeuden ikusteko, kokatzeko, urte bukaerara arteko epea eman nion neure buruari. Ideiak argitu nituen eta hor nabil. Ahal dudan guztietan bizikletan ibiltzen jarraitzen dut, nahi dudalako eta osasunarentzat ona delako jarraitzea. Fisikoki bihotz handia egina dugu eta pixkanaka jaitsi behar da. Mundu honetan jarraitu nahi nuen eta hor nabil.

## Urratsak eman dituzu.

Trek markarekin akordio bat dut. Mendiko nahiz errepideko probak egiten nabil. Ekitaldietara joaten naiz baita, aste ho-



Asier Zubiriarekin batera, Sagardo Eguneke irekiera ekitaldian hartuko du parte.

## HAIMAR ZUBELDIA

*“Ohore bat da. Usurbildarrentzako egun handia izaten da, kasik urteko festak baino garrantzitsuagoa”*

netan Galizan egon behar dut, denda berri bat irekiko baitute. Beti harreman handia izan duan Etxeondo bizikletako arropa marka ere laguntzen nabil. Giroko irteeran Jerusalem 3 egun egon nintzen beraiekin. Bada World Tourrean beste talde bat Etxeondo marka erabiltzen duena. Orain alde honetan apor-

tatu egiten dudala ikusita gustura nago. Ez dut lehen bezala bidaiatzen, etxean gehiago nago eta oso gustura.

## Azaroko herri omenaldi hunkigarritik pasa dira hilabete batzuk. Oroitzapen gozoa gordeko duzu?

Dudarik gabe. Aktiboan zaudenean jasotzen duzu tarteka jendearen hurbiltasuna, baina ibilbide bukaeran, handitu egiten dira sentimendu horiek. Benetan egun horrekin oso eskertua sentitu nintzen. Ez dakit hainbeste merezi nuen baina erabat eskertzen diot Usurbilgo herriari, maitatua eta 20 urtee-

tan egin dudan lanaren atzean jendea hor egon dela sentitu nuelako batez ere.

## Nola jaso duzu, usurbildarrentzat hain berezia den egun honi hasiera emateko aukera hau izatea?

Ohore bat da. Usurbildarrentzako egun handia izaten da, kasik urteko festak baino garrantzitsuagoa. Era normal batean kontaktatu zuten nirekin. Ia gustatuko litzaidakeen eta segituan esan nuen baietz. Gustu handiz joango gara.

## Beste kirolari usurbildar batekin partekatuko duzu oholtza, Asier Zubiriarekin. Neurri batean, identifikatua sentituko zara berak erretiratzeko eman duen urratsarekin?

Dudarik gabe. Bistaz ezagutzen dut baina ez dugu izan urteotan kontakturik. Hala suertatu da eta gustu handiz partekatuko dugu ohore hau. Erretiroagatik orain tokatuko zaidalako bizipenok bizitzea, agian horregatik gehiago fijitzen naiz eta identifikatua sentitzen naiz pertsona hauekin. Halako gertutasuna sortzen da, egoera berean zaudelako eta elkar ulertze hori badago.

# “Badut koadrilakoekin egoteko gogo”

**NOAUA! Sagardo Egunez gozatzeko aukera izango duzu aurten, ziurrenik aspaldiko partez. Ezinbestean, hainbat ediziotan egoterik ez baitzen nuen izango.**

**Haimar Zubeldia:** Ez dakit azken aldiz noiz egongo nintzen. Konturatu, data hauetan beti normalean Ameriketako Californian izaten nintzen, lasterketa hori ia finkoa izaten zen neure egutegian.

## Gogoan duzu ospatu zenuen zure azken Sagardo Eguna?

Duela 20 bat urte izango zen.

Ez dut oroitzen.

## Garai hartako Sagardo Egunez nola ospatzen zenituen?

Lagunekin eguerdi partean plazan buelta hori ematen genuen. Bazkariren bat beti izaten zen, batez ere gozatzeko egun bat.

## Berezia izango da beraz aurtengoa zuretzat, ez bakarrik irekieragatik, aspaldiko partez Sagardo Egunez gozatzeko aukera izango duzulako?

Familian joango gara. Badut koadrilakoekin egoteko gogo.

Ondo ibiliko gara, eguerdi partean plazatik eta gero bazkariren bat egin beharko dugu.

## Zure etapa berri honetako lehen txotx denboraldia amaitu berri da. Sagardotegietatik osteratxo egiteko egiteko aukera izan duzu?

Kasualitatea, atzo bertan Pirinioetan dugun 21 kideko lagun taldearekin Asteasuko Sarasolan izan ginen. Ederki pasa genuen. Duela hilabete Astigarraga aldean izan ginen. Urte guztiotan “galdu” ditudan gauzak egiten saiatzen

ari naiz. Lagunekin elkartzeko aitzakia ere bada. Bizirik dagoen ohitura dela ikusten da.

## Sagardo on batek zer behar du zuretzat?

Gozo puntua duten sagardoak ditut gustuko. Azkenean edan errazagoak egiten zaizkit.

## Zergatik ez dugu galdu behar aurtengo Sagardo Eguna?

Batipat jada Usurbilen sustriak oso sakonduak dituen festa eguna delako eta egun ederra pasako dugulako. Ia eguraldia portatzen zaigun.

## “Igande polita pasako dugu”

**NOAUA! Igandean Sagardo Eguneke irekiera ekitaldian hartuko duzu parte. Haimar Zubeldiarekin batera, jaiari hasiera emateko ohorea izango duzu. Horrelakorik espero al zenuen? Asier Zubiria Aierbe.** Orain dela aste batzuk deitu ninduten eta ezin ezetz esan. Usurbildarrentzat urteko egunik kuttunena da eta horregatik ohore handi bat izango da niretzat. Ondoan Haimar Zubeldia bezalako kirolari bat izanda, are handiagoa. Oso pozik eta oso eskertua nago.

### **Ez zenuen horrelakorik espero.**

Egia esan, ez. Azkenaldi honetan gauza asko pasatzen ari dira nire inguruan. Omenaldiak, ekitaldiak... Sagardo Eguna urruti ikusten nuen eta ez nengoen horretara jarria. Gainera nire burua ez nuen horrelakoetan ikusten. Baina proposatu zidatenean, ederra iruditu zitzaidan. Eta pozgarria.

### **Aurtengoa, beraz, ezberdina izango da zuretzat.**

Azken urteotan beti izan naiz Sagardo Egunean. Kanpoan jokatzeko aritu nintzenean ezin etorri ibili nintzen, baina



“Ohore handi bat izango da niretzat. Ondoan Haimar Zubeldia bezalako kirolari bat izanda, are handiagoa”.

### **ASIER ZUBIRIA**

**“Ez nuen horrelakorik espero. Baina proposatu zidatenean, ederra iruditu zitzaidan. Eta pozgarria”**

azken zazpi urteotan beti izan naiz Sagardo Egunean eta oso gustura ibili naiz. Egun oso polita izaten da. Aurtengoa be-

rezia izango da, bai. Hasierako une hori ezberdina izango da baina gero festan murgilduko gara denak eta berdintsu gozatuko dugu. Familiarekin eta lagunekin batera igande polita pasako dugu.

### **Orain arte, nola ospatu izan duzu Sagardo Eguna?**

Azken urteotan saiatu naiz hasiera hasieratik ez ateratzen, bestela eguna luze egiten da.

Eguerdian atera eta arratsaldera arte festa giroan ibiltzen gara. Izan dira gehiago luzatu izan diren egunak ere... Ederki pasatzen dugu.

### **Taldeak ekarri al dituzu inoiz?**

Sagardo Egunaren berri badute. Aldagelan beti hitz egin diet egun honi buruz. Aurten, baten bat animatuko dela uste dut.

## Asobal Liga amaitzera doa eta Asier Zubiriak larunbat honetan jokatu du azken partida

**NOAUA! Denboraldia amaitzear den heinean, zure agurra ere gero eta gertuago dago.**

**Asier Zubiria Aierbe.** Asobal Liga asteburu honetan amaituko da eta hurrengo asteburuan Euskal Kopako lauko finala jokatuko dugu.

### **Ofizialki, beraz, asteburu honetan bukatuko duzue liga.**

Hori da. Guk etxean amaituko dugu. Larunbat honetan arratsaldeko 17:00etan, Puerto

Sagunto valentziarren aurka.

**Eskerrak azkena etxean egokitu den eta ez Valentzian, ezta?** Beste urte batzuetan kanpoan jokatzeko tokatu izan zait baina gauzez bueltatu eta igandearako hemen izan naiz, Sagardo Egunean.

**Bi hitzordu garrantzitsu dituzu asteburu honetan: larunbatean partida eta igande eguerdian Sagardo Eguneke**

**irekiera ekitaldia.**

Fuerte dator asteburua, bai.

### **Aztoratu samar ibiliko zara honez gero.**

Oraingoz lasai nabil baina larunbatean azken partida jokatu du Artalekun. Egun berezia izango da. Eta hurrengo egunean, Sagardo Eguneke irekiera ekitaldian egon behar dut. Baina igandekoa festa giroan joango da eta errazagoa izango da niretzat.



**Kirol ibilbidea amaituzat emango du denboraldi hau bukatzean.**

### **Zaletuena ez ezik, etxekoan berotasuna ere sentituko duzu larunbatean Artalekun, ezta?**

Lagunak eta koadrilakoak, Usurbildik jende dezente etortzekoa da.

# “Munduko txoko desberdinetako pertsonak

**H**iria eta migrazio prozesuen gaineko topaketak izango dira egunotan, Donostiako Tabakalerako Z aretoan. Sarrera doakoa izango da. Topaketa hauen antolaketa lan betean dabil Onintze Kamino Landa gizarte hezitzaile usurbildarra. Jardunaldiotaz eta bere lan esperientziaz galdetu diogu lerrootan.

**NOAUA! Nondik dator topaketok antolatzeko planteamendua?**

**Onintze Kamino Landa:** Beste lagun batekin batera, aspalditik genuen Donostian zerbait egiteko gogo. Gure kaleetan, egoera zaugarrian dauden pertsona asko bizi dira, eta haien ikusezintasuna, ikusgarri bilakatu nahi genuen jendartearen aurrean.

Migrazio prozesuak erdigunean jarri, gure espazio publiko zein pribatuetan norbere identitatea nola garatzen den aztertu, eta duen garrantzia eman nahi genion problematika honi, gure hiriburuko egoera erreala agerian utziz, eta hau salatuz, bizitza gehiegi baitaude kale egoera oso irregularrean. Besteak beste, iaz Melillara egindako bidaiak ere bultzatu gintuen honetara. Orain arteko bidean, mundu honetan inplikaturik dauden pertsona asko ezagutzeko aukera eman digu bizitzak, eta konturatu gara, han eta hemen, badela giza eskubideen



Tabakalerako Hezkuntza sailarekin batera, “hiru eguneko topaketak antolatu ditugu, mimo eta ilusio handiz”.

## ONINTZE KAMINO LANDA

**“Migrazio prozesuak erdigunean jarri, gure espazio publiko zein pribatuetan norbere identitatea nola garatzen den aztertu, eta duen garrantzia eman nahi genion problematika honi”**

alde borrokan dabilen jende kontzientziaduna, eta horrek, gu ere zerbait egitera bultzatu gaitu. Ideiak (eta emozioak) antolatu eta ezagututako beste esperientziak aintzat hartuz, Tabakalerako Hezkuntza sailarekin batera, eta bertako

Harrotu ileak proiektuaren baitan, hiru eguneko topaketa hauek antolatu ditugu, mimo eta ilusio handiz.

### Topaketa hauekin zer nolako lotura duzu zuk?

Jardunaldi hauek hasiera baino ez direla pentsatu nahi dut, dagoeneko badagoen elkartasun sareari bultzada bat emateko modua. Espero dut puntu honetatik aurrera, indarrak eta ikuspegiak batu, eta norabide berean lanean jarraituko duen olatu bat sortzea, zeinean elkarte, profesional eta herritar bakoitza, olatuko ur tanta bat izango den. Kolektiboki zein indibidualki antolatuturik

daude, arte mundutik zein gizarte hezkuntzatik migrazio prozesuen markoa aztertu, ulertu eta erantzun-sareak eraikitzea posible dela sinesten baitugu. Jardunaldiotako nire eginkizuna, hiru egunen martxa aurrera eramatea izango litzateke. Eta honez gain, nola ez, laguntza sarea sare-tzen jarraitzea, izan ere, gure inguruan elkartasun handiko pertsonak sumatzen ditugu, eta hortaz baliatuz, topaketa hauek tresna gisa hartuta, zerbait sortu nahi da, gure artera iristen den pertsona berri bati ahalik eta ongiatorri beroena egin eta harrera duinena emateko.

## “Duintasunezko bizimodu bat lortzea oso konplexua da”

**NOAUA! Etengabe eta abiada biziari aldatzen ari den mundu honetan, aldaketei egokitu beharrean aurkitzen gara guztiok. Are gehiago, hiri/herri berri batera heltzen den migrante bat. Duintasunez bizi ahal izateko hamaika oztopo izango ditu ezta?**

**Onintze Kamino Landa:** Gure artera heltzen den pertsona emigrante edo errefuxiatu batek oso zaila du dena. Gero eta oztopo gehiago daude bidean hona iristeko, eta behin iritsi ondoren, duintasunezko bizimodu bat lortzea oso konplexua da. Mugaldeak gero

eta itxiago aurkitzen dituzte, gero eta kontrol gehiago dago hegoaldeetik iparraldera datorrenarentzat, eta behin gure artera iritsita, eskubide eta behar oinarritzkoenak asetzea gutxik baino ez dute lortzen. Itxaropen eta amets asko, gurera heltzen direnean hausten dira.

Dauden baliabideak ez dira nahikoak, babes eta laguntzarako errekurtso publikoak gainezka daude, asko egiten da, baina ez nahikoa. Eta giza eskubideez eta duintasunaz ari garenean, ezin da beste aldera begiratu, ezin da ikusezina are eta ikusezina bihurtu.

# ezagutzeko aukera ematen dit nire lanak”

NOAUA! Gai hau gertutik biziko duzu ziurrenik. Gizarte hezkuntza ikasi ostean, harre-  
ra zentro batean diharduzu lanean. Zure lan eremuan emigranteekin lan egitea tokatuko zaizu. Zein da egunerokoan sumatzen duzun errealitatea?

**Onintze Kamino Landa:** Adin txikikoentzako larrialdi harrera zentro bateko hezitzailea naiz, gizarte hezkuntzako gradua bukatzeko praktikak bertan egin nituen eta konturatzerako, hiru urte daramatzat bertan lanean. Pozik nago, maite dut nire ogibidea, eta bokazioa ez ezik, grina ere aurkitu nuen bertan. 0-18 urte bitarteko haur eta gazte autoktonoak ere bizi dira Uba zentroan, baina nire kasuan, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrekin partekatzen dut eguna. Laburbilduz, nire eginbeharra, dena utzi eta gehienetan euren bizitzak arriskuan jarriz, gugaino iristen diren hemezortzi urte azpiko gazteei testuinguru guztietan akonpainamendua ematea dela esango nuke.

Frantziako mugaren gertutasuna aintzat hartuta, gazte askorentzat egun batzuetako atseden gunea da Uba zen-



Iazko ramadanen amaieran, Onintze Kamino Landak Ceutan egindako egonaldian ateratako argazkia.

## ONINTZE KAMINO LANDA

**“Adin txikikoentzako larrialdi harrera zentro bateko hezitzailea naiz”**

troa, polizia frantsesak muga inguruan identifikatzen baititu asko. Kasu hauetan, atzera itzultzerak behartzen dituzte, berriz Donostiara ekarriz, hala eta guztiz ere, bigarren edo hirugarren saiakeretan, gehiengoak lortzen du modu irregularrean muga zeharkatzea, bere bidearekin jarraitu ahal izateko. Sekulako abilezia dute mugikor-

tasunerako, txunditzen nauen zerbait da hori. Baina, beste asko, gelditzera datoz Donostiara. Azken hauek, bakoitzaren beharretara egokitzen den pisura irten baino lehen, hilabeteak egiten dituzte gurekin, eta lotura handia sortzen da erabiltzaile eta profesionalen artean.

Egunerokotasunean sumatzen dudana errealitatea gogorra da, gordina, bere horretan, eta beste askorekin alderatuta, gure bizi maila altuaren dimentsioaz jabetzeko balio dit; gure bizi maila altua, beste askoren bizi maila baxuarekin orekatzen baita.

## “Dena utzi eta bere herritik, bere familiatik urruntzen den pertsonak izango du arrazoirik”

NOAUA! Halako lan batean ari-tuta, zurea lan gogorra dela entzungo zenuen sarritan. Langilean lan baldintzak eta baliabide faltaz hitz egin izan da. Zure kasuan, zein da zure egoera?

**Onintze Kamino Landa:** Lan gogorra baino, intentsitate handikoa dela esango nuke, batzuetan egoerak kontsumitzen zaitu, baina besteetan, ezin da hitzez azaldu senti daitekeena.

Egunak eta egunak daude,

momentuak eta momentuak, jakina da badirela une latzak, digeritzeko zailak, baina beste askotan, bihotza bete-bete eginda bueltatzen naiz etxera.

Gaur egungo egoera apur bat lasaiagoa da, okupazio tasa apur bat jaitsi delako, baina etorkizunera begira jarriz gero, espero dugu berriz ere horrelakorik. Zerbait egin beharrean aurkitzen gara. Denera iritziak entzun daitezke hizpide dugun kolektibo honen

inguruan, baina hausnarketa gisa, pentsa dezagun ea nork inbaditzen duen nor lehenengo. Dena utzi eta bere herritik, bere familiatik eta bere kulturatik urruntzen den pertsonak, izango du arrazoirik. Aldundia bera ere egoeraren larritasunaren jabe da, eta espero dugu aurrerantzean, aintzat hartuko dituztela bizi hobea baten bila beraien herrialdetik irten diren emigrante eta errefuxiatuak.

## “Erresilientziarako jaio ziren”

NOAUA Zure ogibidea asegarrira ere izango da ezta?

**Onintze Kamino Landa:** Munduko txoko desberdinetako pertsonak ezagutzeko aukera ematen dit nire lanak. Herrialde, identitate, hizkuntza, klase sozial, kultura eta erlijio desberdinetatik datoz, bakoitza norbere motxilarekin kargatuta iristen da eta euren prozesu migratzaileetako istorioak entzunda, txunditurik gelditi daitezke edonor. Erresilientziarako jaio ziren, bizimodu hobearen bila gogor ahalegintzeko, eta horren isla dira, zentroan egunero jaso ditzakezun irribarre eta besarkadak.

## Jardunaldiak Tabakaleran

### Maiatzak 17, osteguna

- 18:30 Migrazioak eta krisi globala: Santiago Alba Rico.
- 19:30 Bizi esperientzia bat: Katya Reimberg.
- 20:00 Museum of Impossible Forms: Ahmed Al-Nawas.

### Maiatzak 18, ostirala

- 18:30 Mugikortasunak eta mugak. Prekarietateak mediaziara: Mercedes Jiménez.
  - 19:30 Bizi esperientzia bat: Ibrahim Reghioui.
  - 20:00 Hirian geratzeko gida: Felipe Polanía.
- Harrotu ileak. Identitatea, harremanak eta gazteak: Tabakalerako hezkuntza taldea.

### Maiatzak 19, larunbata

- 9:00 Bertako testuinguruaren argazkia I: Samira Goddi, Ane Iturbe, Laia Abokatuak, Loira Manzani.
- 11:30 Bertako testuinguruaren argazkia II: Bidez Bide elkarte, Kolore Guztiak elkarte, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma.
- 16:00 Lan-saioa.

# Giza katearen atarian, erabakitze



Ekainaren 10ean Usurbil eta Aginagatik igaroko den giza katean parte hartzera animatzen gaitu Usurbilgo Gure Esku Dagok. Argazkia: Gure Esku Dago Usurbil.

**Z**u ezinbestekoa zara, ez pentsatu besteak egongo direlako zu ez egoteak axola ez duenik. Beharrezkoa zara. Mezu argi honekin ekainaren 10ean Usurbil eta Aginagatik igaroko den giza katean parte hartzera animatzen gaitu Usurbilgo Gure Esku Dagok. Dagoeneko 500 herritarrek eman dute izena, baina gutxienez 1.000 lagun beharko dira.

Antolaketa lanetan parte hartzeko deia egin dute baita, eta horretarako izen ematera. Jendea beharko baita ekainaren 10ean, errepidea zaintzeko esaterako. N-634 errepidetik igaroko baita giza katearen zati handi bat. Errepidea ez dute itxiko, honenbestez giza ka-

## EKAINAREN 10EAN, GIZA KATEA

**Dagoeneko 500 herritarrek eman dute izena, baina gutxienez 1.000 lagun beharko dira**

terako erreil bat baliatuko da. Trafikoa bideratzen laguntzeko, Usurbilgo lurretatik igaroko den giza kate zati osoa edota Buruntzaldeko gainerako herrietatik etorriko diren herritar eta autobusen joan etorria kudeatzeko, bolondresak beharko dira.

### Uhar-te Arakilen bizi izandakoa berritzeko aukera

Ekainaren 10ean askok bertutuko duela lau urte, Uhar-te Arakilen bizi izan genuena. 900 bat usurbildarrek eman

zioten elkarri eskua erabakitzeko eskubidearen alde, orduko hartan. "Hara joan ez ziren lagunak ditugu eta pena handiz bizi dute hori. Animatu, ekainaren 10ekoa, gero denok gogoan izango dugun egun bat izango baita", iragarri dute Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak.

### "Hormak botatzen lagundu du"

Duela lau urteko mobilizazio hark inflexio puntua eragin zuela aipatu digute. "Horma batzuk botatzen lagundu du". Bai herritar zein eragileen artean. Denborarekin, besteak beste, egun erabakitzeko eskubidearen gaia presente egotea ekarri du, eta hau gaur egun, "Gure Esku Dago gabe ezingo litzateke ulertu". Bide honetan mugarriz garrantzitsua finkatu zuen baita, iazko maiatzeko

galdeketak. Herritarrek antolaturikoa izanik, nabarmen-tzekoa da atzean egon zen elkarlan eta auzolana. "Meritu handia du", diote Gure Esku Dagotik. Horrek erakusten du herri honetan ze indar eta energia dagoen. "Egunerokoa ez gara jabetzen, herri batean ehunka lagun, borondate propioz, halako ariketa demokratiko baterako biltzeak zer esan nahi duen".

### "Herritarren bultzadarikgabe ez da ezer mugituko"

Ekainaren 10ean, energia erakustaldi hori egitera, etorkizunari eskua ematera gonbidatzen gaitu Gure Esku Dagok, "baitza nahi badugu guk bultzatu behar dugu". Argi diote, "dena ez dago herritarren esku, baina herritarren bultzadarik gabe ez da ezer mugituko".

## Erabakitze arrazoi biltzetaz eta giza kateaz jakin beharrekoak

### Hurrengo deialdiak:

■ Gure Esku Dago Usurbilek etxeetan banatu dituen triptikoetan erabakitze arrazoiak idatzi, eta asteburuetan frontoi inguruko izen emate mahaian, Aginaga eta Santueneko jubilatu elkarteetan eta Sutegi udal liburutegian jarriak egongo diren postontzietan utzi.

■ Asteburuetan (ostiral arratsalde, eta larunbat nahiz igande eguerdian): giza katean parte hartu edo antolaketa lanetarako izen emateko mahaian frontoi inguruan. Izen emate orriak har daitezke bertan baita, lagun artean edo familian giza katearako inskripzioak bideratzeko. Materiala (Kamise-

tak eta zapiak) erosteko aukera dago baita.

■ Maiatzak 26, larunbata: erabakitze arrazoiak biltzeko eta giza katearako girotzeko, Klik Eguna eguerdi partean plazan. Haurrentzako katea osatzeko tailerra. Helduentzako tailerrak, musikaz girotu.

■ Giza katea egingo den egunaren aurretik, antolaketa lanetan parte hartuko duten boluntarioentzako bilera irekia egingo da, beharrezko argibideak emateko. Hitzordua aurrerago iragarriko dute.

■ Ostegunero 19:00etan Potoxoenan, Usurbilgo Gure Esku Dago taldearen bilera irekia.

# arrazoiak biltzen



Ekainaren 10ean “energia erakustaldi hori egitera, etorkizunari eskua ematera” gonbidatzen gaitu Gure Esku Dagok.

## “Ezinbestekoak gara denok arrazoi bilketa honetan”

Giza katean parte hartzeko deia luzatzearekin batera, bigarren gonbita ere egin digute. Ekainaren 10eko hitzordua, Gure Esku Dagok landua duen plangintza zabalago baten baitan kokatua dago. Erabakitze eskubidea aldarrikatzetik gauzatzerako bidea jorratu nahi du aipatu herri mugimenduak. Bide horretan, urrats berri bat eman nahi da hilabeteotan. “Herriarri Itun bat osatzen joatea planteatzen dugu”.

Zergatik eta zertarako erabaki nahi dugun, erabakitze arrazoiak bildu nahi dituzte; 2019 arrazoi, eta gehiago, herriarri ekarpenekin. Horre-

## ERABAKITZE ESKUBIDEA, ZERGATIK ETA ZERTARAKO

**“Denon arrazoiak dira garrantzitsuak. Ezinbestekoak gara denok arrazoi bilketa honetan”**

tarako, triptiko bat banatu du Usurbilgo Gure Esku Dagok etxez etxe. Bertan, erabakitze zergatiak adierazteko aukera dugu. “Buruari eragin, zergatik eta zertarako nahi dugun erabakitze eskubidea. Denon arrazoiak dira garrantzitsuak. Ezinbestekoak gara denok arrazoi bilketa honetan”. Urte hasieran, gai ezberdinen inguruan (gure lurra, hiritar-

tasuna, ongizatea eta kultura) hiriburuetan eginiko hitzaldi zikloarekin abiatu zuten arrazoi bilketa, haratago doa, “gai zehatzak ateratzen joan ahala, horren inguruan nola erabaki, ze tresna erabil ditzakegun ikusgarri egiten joateko”.

## Maiatzaren 26an, Klik Eguna

Arrazoi bilketa hau plazaratze baliatu nahi da, beste hainbat herrietan bezala, maiatzaren 26an Usurbilen antolatuta duten Klik Eguna. Arrazoi bilketa honekin, herrietan bildutako indar erakustaldia izan nahi du baita ekainaren 10eko giza kateak. “2019 arrazoi eta gehiago ditugula erabakitze, erabaki nahi dugula” adieraz-

teko. Indar erakustaldi bat baita, hauteskunde zikloan murgiltzear diren eragile politikoen aurrean. Gogoan izan, Gasteizko Legebiltzar parean amaituko da datorren giza katea, “eta ez da kasualitatea” noski, Gure Esku Dagoren esanetan.

Usurbilen bezala, Euskal Herriaren herriz herri, eskualdez eskualde egingo den arrazoi bilketarekin Herriarri Ituna osatuko da. Gerora, eragile anitzen artean adostu nahi dena. “Herri Itun hori sustatzeko unean zubi lana egitea da Gure Esku Dagoren asmoa”. Argi denez, prozesu hau asteotan, herriarri bakoitzak eginiko ekarpenetik abiatuko da, behetik gorako prozesu argia izango da.

## Giza katea, kilometroz kilometro

### Ekainak 10, igandea

■ 10:00-11:30 Giza katean kokatzea, norberak dagokion kilometro zatian. Gure Esku Dagoren kamiseta berriekin eta zapiekin agertzeko deia. Giza katerako girotea.

■ 12:00-12:30 Donostiako Kontxa, Bilbo eta Gasteizko Legebiltzarra, eta bide horretan zehar, beste 38 herri lotuko dituen 201,9 kilometroko giza katea.

■ 12:30 Giza kate amaierako ekitaldia.

■ 13:30 Jai giroa Donostian,

Bilbon eta Gasteizen iluntzera arte.

### Usurbilgo eremua (guztira 4.500 lagun):

■ 9. kilometroa: Lasarte-Oria.  
■ 10. kilometroa: Lasarte-Oria.

■ 11. kilometroa: Zubieta-Usurbil.

■ 12. kilometroa: Usurbil (11 eta 12 kilometroetako ibilbidea: Troia ingurutik N-634 errepidetik Oxtapera, handik Kale Nagustitik barrena Atxegalde parean berriz ere N-634

errepidera Kaparotz ingururaino).

■ 13. kilometroa: Andoain.

■ 14. kilometroa: Andoain.

■ 15. kilometroa: Urnieta-Aginaga (aginagarren eremua, Aginaga erdiguneko eremuan).

■ 16. kilometroa: Astigarraga.

■ 17. kilometroa: Hernani.

Guztira gutxienez behar den jendea: 1.000 lagun Usurbilen (11 eta 12 kilometroetan, Troiatik Kaparotzera), beste 250 lagun Aginagan (15. kilometroan, Aginaga erdialdean).

### Informazio gehiago:

■ Facebook:

Gure Esku Dago Usurbil.

■ Twitter:

@GureEskuDagoU

■ Web orrialdea:

gureeskudago.eus

Giza katean Internet bidez bidez izen emateko aukera, gizakatea.gureeskudago.eus atarian. Izen ematerakoan kontuan izan, zubiatar, usurbildar eta aginagarrik zein kilometrotan egongo diren.

■ Antolatzailea: Gure Esku Dago.

# Usurbil K.E.-ren kadete mutilek Sektorea jokatzeko txartela eskuratu dute

Eginiko ahaleginak goiz edo beranduago emaitzak ekartzen ditu. Usurbil K.E.-ren kadete mutileen kasuan bezala. Euskadiko Txapelketan lehen hiru taldeen artean amaituta, Espainiako Sektorea jokatzeko sailkatu dira. Bartzelonara doaz asteburuan. Bezperatan bildu da NOAUA!, taldeko entrenatzaile Iñaki Irazustarekin.

**NOAUA! Giro gozoa izango duzue taldean?**

**Iñaki Irazusta:** Inork ez zuen honaino heltzea espero. Aurten bigarren urteko jokalaririk bakarrik dugu, gainerakoak lehenengo urtekoak dira. Urtebete zaharragoekin lehiatzen ari dira, kategoria honetan gehienak bigarren urtekoak baitira.

**N. Halakoetan meritua handiagoa izango da, talde berria osatzeko denbora beharko baita.**

Bai. Denboraldiko helburua taldea egiten joatea eta mailaz, Euskal Ligatik ez jaistea zen. Pixkanaka, gaztetxook maila bikaina dutela ikusten joan ginen.



“Bigarren urteko jokalaririk bakarrik dugu, gainerako jokalaririk lehenengo urtekoak dira”, Iñaki Irazusta esana.

## IÑAKI IRAZUSTA

**“Nahikoa erregularra izan da denboraldia. Talde osoa urte amaierara motibaturik heltzen saiatu gara”**

**N. Zer bereizgarri ditu talde honekin?**

Batez ere duten motibazioa. Talde aitzakiarik jarri gabe dator entrenatzera. Bestalde, guk bere garaian jokaldiak egiten ez genekien. Hauek gure aldean baliabide asko dituzte. Eskubaloia asko ikusi dute.

**N. Denboraldiaren eboluzioa, etenik gabeko hobekuntzak**

**baldintzatu du beraz.**

Nahiko erregularra izan da denboraldia. Hasieran taldea forma hartzen ari zen. Abendutik aurrera forma mantentzen saiatu gara. Jendea motibatzen saiatu gara. Gutxi jokaten dutenak ere ahal genuenean atera dira jokatzera. Partidak amaitu, eta gutxi jokatu duenari hurrengo neurketarako motibatzen saiatu gara. Talde osoa, urte amaierara motibatua heltzen saiatu gara.

**N. Taldea zaintzea izan da beraz erronka nagusietakoa.**

Elkarren artean lagunak dira, beti daude elkarri laguntzen, xaxatzen eta horrek asko eragiten du talde batean.

**N. Noiz sailkatu zineten asteburuan jokatzeko duzuen sektorerako?**

Euskadiko Ligak sailkatutako lehenengo lau taldeek fase bat jokatu genuen duela aste batzuk Zarautzen. Lau horietatik hiru sailkatu ziren sektore honetan; Bidasoa, Zarautz eta gu. Guri Bartzelonan jokatzeko egokitu zaigu.

**Maila hauetan garrantzitsuena “eskubaloiaz gozatzea da”**

**NOAUA! Sektorearen ostean zer datorkizue?**

**Iñaki Irazusta:** Gipuzkoako Koparekin segiko dugu.

**N. Denboraldi honekin, taldea hurrengo denboraldian lehiatzen segitzeko motibatu egongo da?**

Bai. Aurten jokalaririk denak bat ezik lehenengo urtekoak direla kontuan izanda, hurrengo denboraldian jokalaririk bat galdu egingo dugu, gazteagoak etorriko dira. Halere dugun bloke hori mantenduko da. Aurten bezala, lasai hasiko dugu denboraldia eta noraino hel gaitzkeen ikusiko dugu. Taldea mantentzen bada gu gustura. Baina maila hauetan garrantzitsuena dena, eskubaloiaz gozatzen segi dezatela.

**Partidak asteburu honetan jokatzeko dira Katalunian**

■ Jokatzeko duten sektorea: C.

■ Noiz: maiatzak 18-20.

■ Non: Sant Joan Despi (Bartzelona, Herrialde Katalanak).

■ Aurkariak:

-F.C. Barcelona Lassa

-H.C. Eivissa

-Elda C.E.E. “A”

## “Taldeak bizi osoan oroitu duen esperientzia izango da”

**N. Sagardo Eguneko asteburu berezi honetan.**

**Iñaki Irazusta:** Entrenatzaileen tizat berezia, baina esperientzia berri bat. Gaztetxo hauek gozatzen ikusteagatik bakarrik sektorean joateak merezi du. Gainera gaztetxo usurbildarrak Bartzelonarekin lehiatzen

ikusteak ederra izango da. Irabaztea oso zaila izango da, ia ezinezkoa. Baina taldeak bizi osoan oroitu duen esperientzia biziko du.

**N. Aurreko urteetan sektoretara senior mailakoak sailkatzeko ikustera ohituak ginen.**

Iaz aurten jubenil mailan lehiatzen ari diren kadeteak ere sailkatu ziren. Horrek esan nahi du azpitik lan egiten ari dela kluba. Lehen garai batean ez ginen ezta Euskal Ligan, eta orain hortxe gaude. Eginiko lanaren emaitzak pixkanaka badatoz.



Barcelona, Eivissa eta Elda taldeak izango dira Usurbilen aurkariak.



# Bizitza Da Handiena plataformak herri borroka astea deitu du

Larunbat honetan (hilak 19) goizeko 10:30ean, Donostiako Bulebarrera bizipoza eta lotarako zakua eramateko deia egiten ari dira sare sozialen bidez. Herri borroka astea iragarri dute maiatzaren 19tik 26ra hiriburuan, "Bizitza Da Handiena" aldarripean.

Kalea bizi-bizi dagoela gogorazten dute deitzaileek, protestarako hamaika arrazoi dardela eta horiei guztiei erantzun bateratua eman asmo diete astebetez, "agintetik aurrera eramaten ari diren herritarren aurkako politikei aurre egin behar zaiela uste dugulako. Behar izugarria dago, egoerak eskatzen du, eta horren froga da batu garen eragile eta herritarren aniztasuna".

Dagoeneko herri mugimendu eta sindikatu ugari bat egin dute ekimen honekin. Ekimen honen filosofiarekin bat datozen Euskal Herriko gainerrako eragileek atxikimendua emateko aukera dute ostegun iluntzera arte, bizitzadandiena@gmail.com helbidean.

Mundu mailan nahiz Donostian aurrez izan diren esperientziak erreferentzia gisa baliatu dituzte, ekimen hau antolatzerakoan; desobediencia



Herri borroka astea iragarri dute maiatzaren 19tik 26ra Donostian.

## HERRI PLATAFORMA

**Larunbat honetarako Donostiara "bizipoza eta lotarako zakua eramateko deia egin dute"**

ekimen masiboak, atxiloteten aurkako herri harresiak, greba feminista, pentsiodunen mobilizazioak, 15M,... edota erraustegiaren aurkako kanpaldia. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak ere bat egin du besteak beste, ekimen honekin. "Borroken artean loturak egiten saiatuko gara", adierazi du Bizitza Da Handiena ekimenak sare sozialen bidez.

Iragarri dutenez, "desobediencia zibila, kolaborazio-eza, ekintza zuzena, erresistentzia izango dira gure borrokarako tresna lege eta politika injustuei aurre egiteko; beren bortxa agerian utziko dugu guk biolentziarik erabili gabe. Erasoen aurrean elkartasuna izango da tresnarik indartsuena".

Berlaratzeko deia egin dute. "Garrantziatsua izango da adin eta esparru ezberdinetako jendea bildu eta denok bertan gustura sentitzea, gure lekua daukagula ikustea. Horregatik, era guztietako konpromisoak, denak balorean jarriko ditugu".

## Sagardo Egunez, jai giroa Ernairen karpa gunean

Musika, jan edana eta mobilizaziorako tartea izango da 37. Sagardo Egunez, euskal presoaren eskubideen alde Ernai Usurbilek Mikel Laboa plazan antolatu duen karpa gunean. Talogileak lanean ariko dira eguerdi partera arte. Eguerdian, euskal presoaren eskubideen aldeko elkarretaratze eta giza katea egingo dira. Eta musika izango da arratsalde eta iluntzean:

### Maiatzak 20, igandea

- 11:00 Txosnagunearen irekiera.
  - 13:00 Presoen aldeko kalejira eta txotxa.
  - Talogileak eguerdira arte.
  - 17:00 Lendakaris Puertos.
  - 21:00 Dj Jotatxo.
- Antolatzailea: Ernai Usurbil.

### Beste hitzorduak

Euskara, aisia eta artea, ardatz hauen inguruan antolatu

du Usurbilgo gazte mugimenduak maiatzeko agenda.

- Maiatzak 18, ostirala: 22:00 Kafe Tertulia Potxoenean: Emakumea eta Sexualitatea.
- Maiatzak 19, larunbata: Mihi-luze saioa Askatasuna plazan.
- Maiatzak 25, ostirala: 21:30 "Zer da artixta izatea? Usurbilgo artixtekin solasaldia Potxoenean.
- Ondoren, Andoni bakarlarria Sutegi atarian.

## Elkarretaratzea

### EITB atarian

Birziklatzearen Nazioarteko Egunean, maiatzaren 17an elkarretaratzea deitu du Erraustetaren Aurkako Mugimenduak 18:00etan EITB-ren Miramongo egoitza atarian. Udazkenaz geroztik, telebista publikoak erraustegiari buruzko eztabaida eman dezan eskatzeko change.org atarian bildutako ia 10.000 sinadurak entregatuko dira mobilizazio horretan.

## Fiskaltza ere

### Intxaurrandieta

### eta Errazkin

### zigortzearen alde

2013ko azaroan erraustegia geratzeagatik epaitu zituzten apirilaren 12an Madrilgo Kontu Auzitegian, garai hartako GHK-ko lehendakari Ainhoa Intxaurrandieta eta foru ingurumen diputatu Iñaki Errazkin. Aurreko ostegunean, ondorioak azaltzeko saioa egin zuten. Fiskaltzak bat egin du, orain bost urte Zubietako erraustegia geratu izanak eragindako gastuak, egungo GHK-ko arduradunek Errazkin eta Intxaurrandietari ordainarazteko eginiko eskaerarekin. Gogoan izan, EHBilduko bi kideon poltsikoetatik 45 milioi euro ordaintzea eskatzen diete auzitara eraman dituzten GHK-ko egungo kideek.

### LABen babesa jaso dute

LAB sindikatuak bestalde, babesa adierazi die Intxaurrandietari eta Errazkini. Herritarren mandatu bate bano ez zutela egin dio sindikatuak. EHBilduko bi kideok hartutako erabakiak ordean, EAJ sustatzen ari den ereduaren aurka jo izana ordainarazi nahi zaiela ohartarazten du.

# Hegoaldeko zuhaitz-igela ezagutzeko irteera antolatu dute Aginagan

**A**ntxomolantxa Elkar-teak Aginagako Arrate baserri inguruetara irteera antolatu du larunbat honetarako (maiatzak 19). Goizeko 10:00etan abiatuko dira Aginagako frontoitik.

Familia giroko txangoa izango denak Arrate baserrirantz joko du aipatu moduan. Zonalde horretan dagoen igel putzu bat bisitatuko dute. Bertan dauden igelak, hegoaldeko zuhaitz-igela, babestu beharreko espeziea dugu.

## Zaindu beharrekoa

Euskadiko anfibio urriena aurkitzen da bertan, baita Mendizorrotz eta Igara inguruetako zenbait putzuetan ere. Ezagutu eta zaindu beharreko ondare bizia beraz.



Goizeko 10:00etan abiatuko dira Aginagako frontoitik.

## LARUNBAT HONETAN

**“Arrate baserri ondoko zonaldean dagoen putzu bat bisitatuko dute”**

Aranzadi Zientzia Elkarte-k kideek xehetasun gehiago

eskainiko dizkiete txangoan parte hartuko dutenei. Aipatu moduan, plan egokia herritar ororentzat, bereziki haur eta gurasoentzat.

■ Eguna: Maiatzak 19 larunbata.

■ Ordua: 10:00etan.

■ Irteera: Aginagako frontoitik.

## Aginagako txokoak

Ostiral honetan (maiatzak 18) itxiko dute, Aginagako udako txokoetan izena emateko epea. Ekainaren 25etik uztailaren 30era izango dira baina, Aginagako San Praixku guraso elkartetik ohartarazi dutenez, “abuztuan ere eskaintzeko asmoa dugu, taldea sortzen bada behintzat”. Izen emateko bi aukera dituzte interesdunek: iraupen osoa edota asteak solte. Informazio gehiago helbide honetan: [aginaga@eskolatxikiak.org](mailto:aginaga@eskolatxikiak.org)

## Hitzaldia Zubietan

Maiatzaren 14an izango dela iragarri bagenuen ere, hilaren 21ean izango da, arratsaldeko 15:00etan Zubietako Kaxkape egoitzan. ELIKA fundazioko kide Edurne Gantxegi arituko da hizlari lanetan. Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte.

## 5 bolondres behar dira Andatzan indusketa lanetarako



Maiatzaren 18an amaituko da izen-ematea.

Aranzadi Zientzia Elkarteak egin du deialdia. Parte hartu nahi duenak, aranzadi.eus atarian doan izen emateko maiatzaren 18ra arteko epea

du. Lanok egun solteetan egingo dira uztaila eta urria artean. Egitasmo honetan laguntzen dihardute Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

## Maiatzaren 26an, Muxurbilgo ikasleen emanaldia



Maiatzaren 26an Sutegin arituko dira.

Ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute antzerki taldeko kideek, maiatzaren 26an larunbatarekin, 12:00etan Sutegin auditio-

rioan. Emanaldirako sarrera doakoa izango da. Gonbidapenak eskuratu beharko dira. Emanaldi egunean bertan Sutegin banatuko dituzte.

# Maiatzaren 11ko pilota jaialdia, bi astez atzeratua

Pilotarietako baten lesio bat tarteko, maiatzaren 11rako Garfe pilota enpresak iragarria zuen pilota jaialdia atzeratu egin dute bi astez. Honenbestez, maiatzaren 25ean ospatuko da, aurreikusia zegoen ordu eta toki berarean; 19:00etan frontoian.

Sarrerei lotutako oharrak. Joan den ostiraleko jaialdirako sarrera eresia zenutenok, ondo gorde; maiatzaren 25ean erabili ahalko duzue eta. Aldiz sarrera eresia izan eta hilaren 25eko jaialdira joaterik ez duzuenok, txartela itzuli ahalko duzue.

## Pala eta pilota jaialdia

Pala eta pilota jaialdia antolatu du Garfe enpresa pilotak. Bere pilotari taldean du usurbildar bat, Xabier Santxo Sagardia. Neurketetako batean, binaka



Sarrera erosi zenutenok maiatzaren 25ean erabili ahal izango duzue.

## PILOTA JAIALDIA

**Sarrerak salgai dituzue 9 eurotan, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan**

eskuz lehiatuko da Santxo Gorrotxategirekin batera, Xala-Santxez bikotearen aurka.

Emakumeen arteko pala partida ere jokatu da, Larrarte-Maiza eta Balerdi-Arrillaga bikoteen artean.

Jaialdiaz gozatzeko sarrerak salgai dituzue 9 eurotan, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan. Egunean bertan 12 eurotan eskuratu ahalko dira, haurren 5 eurotan.

# Udala-Arlaban, Gipuzkoako Biraren segida

Aurreikusia zutena baino astebete lehenagorako, ekainaren 3rako iragarri du Andatza M.K.T.-k hurrengo txangoa; urte hasieratik abian duten Gipuzkoako Biraren bosgarren etapa, Udala-Arlaban artekoa. Txangorako izen ematea zabaldu dute:

- Eguna: ekainak 3, igandea.
- Abiatzeko hitzordua: 07:30ean autobusez, Oiardo Kiroldetgitik.
- Ibilbidea: 27 kilometro.

■ Izen ematea: maiatzaren 30a baino lehen, 10 euroko ordainketa egin kontu zenbakio-tako batean:

Rural Kutxa: 30080259163005430321  
Kutxabank: 20955069071068489805

■ Oharrak:

- Plaza mugatuak.
- Otordua ibilbidea amaitutakoan egingo da.
- Janaria norberak eraman behar du.
- Edaria Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak eramango du.
- Andatza Mendizaleen Kirol

Klubak antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. Federatu gabe dagoenari tramitea egingo zaio, hala nahi badu. Horretarako web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo jarri harremanetan [andatz@hotmail.com](mailto:andatz@hotmail.com) helbidean.

■ Informazio gehiago: [andatz.com](http://andatz.com)

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

## Andatza Eguna, zuzenketa

Andatza Egun jendetsuaren berri eman genizuen due-la astebeteko aldizkarian. Azken lau urteotako etenal-diaren ostean, usadio zahar hau Andatza M.K.T.-ren bolondresak eginiko ahaleginari esker berreskuratu zela adierazten genuen. Datu hau ez da zuzena ordea. Jai eguna antolatzen Santueneko gazte koadrila bat aritu baitzen. Nabarmentzekoa da diogunez, Andatza Eguna berreskuratzeko egin duten ahalegina. Bejondeizuela! Barka eragozpenak.

## Eskubaloia

### Kiroldegian

**Maiatzak 19 larunbata**

- 16:30 Jubenil neskek, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Pulpo
- 18:00 Jubenil mutilak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Legazpi

## Larunbat honetan erregionalen azken neurketa

Mailaz igotzeko aukera duen Usurbil F.T.-ren erregional mailako futbol taldeak denboraldiko azken partida jokatu du larunbat honetan (maiatzak 19) 17:30etan Haranen. Aloña Mendi K.E.-koak izango dituzte aurrez aurre. Taldea babestu eta animatzera joateko deia egiten diete usurbildarrei.

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**Okindegia-Gozotegia**  
**LABE-GOXO**

**Usurbil Autoak**  
**MEKANIKA-KARROZERIA**  
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!  
**ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA**  
**943 36 10 79**



ratuta. Tel 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatrico eta lehen laguntzako eza-gutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldean. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldean. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketara lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsaldetan umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketara lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketara egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan ari-

tzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketara lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak

zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketara lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo

orduka eta astelehentik ostirale-  
ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria seguituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatrico laguntzaila bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutzak). 688 654 698.

Ileapaintzaila bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketara, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

#### BESTELAKOAK

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebista, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehentik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noau! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

<b>Osteguna 17</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Ostirala 18</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
<b>Larunbata 19</b>	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
<b>Igandea 20</b>	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
<b>Astelehena 21</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Asteartea 22</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
<b>Asteazkena 23</b>	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

## Maiatzak 17 - Maiatzak 27

<b>Osteguna 24</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
<b>Ostirala 25</b>	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
<b>Larunbata 26</b>	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Igandea 27</b>	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda maiatza

## 18 ostirala

- **Olatz Kortaren eta Xabi Zubeldiaren musika emanaldia.** 17:00etan Bihurri ludotekan.
- **Ikastolak 50 urte: disko aurkezpena** 19:00etan frontoian.
- **Kafe tertulia** 22:00etan Potxoenean. Antolatzailea: Usurbilgo Gazte Mugimendua.

## 19 larunbata

- **Ate irekien eguna Lanbide Eskolan** 11:00.
- **Mihiluze saioa** 19:30ean Askatasuna plazan. Antolatzailea: Usurbilgo Gazte Mugimendua.

## 20 igandea

- **37. Sagardo Eguna 2018.**
- **Giza katea.** Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak deituta. 13:00ean Mikel Laboa plazatik.

## Olatz Kortaren eta Xabi Zubeldiaren emanaldia Bihurri Ludotekan

Ostiral honetan arituko dira, Bihurri ludotekak antolatuta, arratsaldeko 17:30etik aurrera ludotekan bertan. Euskal Herria ezagutzera datozen Mattin eta Mariren bizipenak jasotzen ditu ekitaldiak, musika, dantza edota kontakizunen bidez.

### Identitateari buruzko hitzaldia

Maiatzaren 30ean astelehena, gurasoei zuzenduriko hitzaldia: "Identitatearen ibilbidea. Neska-mutil anitzak, sexualitateak, transexualitatea". 17:00etan, Bihurri ludotekan.

### Ekainean, "bazkideon merienda"

Ekainaren 22an ostirala, 17:00etatik aurrera, "Bihurriko bazkideok opor ha-

### 'Ikastolak 50 urte' disko aurkezpena frontoian

Udarregi Ikastolaren 50. urtemugaren harira, disko bat grabatu dute eta ostiral honetan aurkeztuko dute. 19:00etatik aurrera, frontoian. 12 kantuz osaturiko diskoa 6 eurotan eskura dezakezue, Lizardi eta Laurok liburu dendetan, Bordatxo tabernan eta Udarregi Ikastolan.



Ostiral honetan, 17:30ean, Bihurri ludotekan arituko dira Xabi eta Olatz (argazkian).

siera merienda batekin ospatuko dugu. Zatoz!! Oparitxoak ere egongo dira!"

### Elikadura osasuntsua hizpide Zubietan

Maiatzaren 14rako iragarri bagenuen ere, maiatzaren 21ean astelehena egingo da hitzaldia, arratsaldeko 15:00etan Zubietako Kaxkape egoitzan. ELIKA fundazioko kide Edurne Gantxegi arituko da hizlari lanetan. Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte.

### Datozenak

#### Maiatzaren 22tik 26ra, Udaberri Festa Zubietan

Honax Zubietako Eskolako Guraso Elkarteak aurtengorako osatu duen egitaraua:

#### Maiatzak 22, asteartea

- 17:00 Eskulanak.
- 19:00 Buruhandiak.

#### Maiatzak 23, asteazkena

- 17:00 Kantukantoi taldearekin ipuin kontaketa eta ilustrazioa.
- 18:00 Globo gerra eta apar festa.

#### Maiatzak 24, osteguna

- 16:30 Merendola.
- 17:00 Puzgarriak eta trebetasun frogak.

#### Maiatzak 25, ostirala

- 17:00 Zubietan antzerki eta dantza taldeko ikuskizunak.
- 18:00 Altxorraren bila.
- 19:00 Afari-merienda, eta ondoren, disko festa.

#### Maiatzak 26, larunbata

- 10:00 Eguneko irteera: orientazio froga Pagoetako parkean, 10:00etan, Iturrarango parketxetik.
- Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko guraso elkarte.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

ETXETRESNEN  
KONPONKETAK  
eta SALMENTA



MARKA GUZTIAK  
azkar, prezio onean  
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665  
XABIER Usurbil

ALDAMU  
KONPONKETAK  
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

# OSASUN GIDA 2018



**Irati Ibargoien**  
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA  
**943 53 92 66**  
Puntapax 68. behea ezk. - USURBIL



**PILATES TERAPEUTIKO PERTSONALIZATUA**  
Errehabilitazioa · Kiral fisioterapia  
Fisioterapia traumatologikoa · Terapi funtzionala  
Fisioterapia neurologikoa · Osteopatia



**USURBIL OPTIKA**

Bigarren lente pareta doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urrunekeo lenteetan

2. lente pareta doan  
**2x1**  
PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10 • 943 370 269 • 675 708 654



**Öinutsik**  
p o d o l o g i a z e n t r o a  
943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil

- Azterketa posturalak
- Azterketa biomekanikoak
  - Plantilak
  - Kiropodiak
- (Kailoak, azkazalak, ondoak...)
- Papilomak
- Erreflexoterapia



**Iturraldebotika**  
Tomas Iturralde botika,  
33/17 PEZ

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua  
Dermofarmazia  
Produktu homeopatikokoak  
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95



✓ **OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA**  
✓ Produktu ortopedikoen **alokairu zerbitzua**  
(oheak, aulkiak, garabiak...)  
✓ Arreta pertsonal eta **espezializatua**

✚ Teknikari ortopeda kontsulta    👤 Aholkularitza    🧴 Produktu gama zabala

Kazkozuri 1 baxua, OIartzun - 943 543 585/ 688 678 583  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA    R.P.S 28/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 6ra  
EGUERDITAN IREKITA  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei  
sagardo hobereenak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubieta

# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

# aginaga

## SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXeko SAGARDOA  
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA



### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



%100 bertako saarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea